

# IRUDIZ ETA EUSKARAZ. GURE HIZKUNTZAREN ZINEMA. GURE ZINEMAREN HIZKUNTZA

Josu Martinez  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), 278 or.  
Bilbo, 2022

## I. Hizkuntzatik zinemara, *ergo*, zinematik hizkuntzara

*Irudiz eta euskaraz. Gure hizkuntzaren zinema. Gure zinemaren hizkuntza* liburuaren aurrekari gisako ikerketa Eibarko Udalak UEU'rekin lankidetzan antolaturiko XIV. Juan San Martin bekaren irabazlea suertatu zen, 2019. urteko deialdian. Esku artean dugun emaitza argitaratua, aipatu egitasmoaren fruitu aurreratu bezain mamitsua litzateke, ene uste apalean bederen. Tituluak, jada, garbiro adierazten digu zein den idazlearen guraria eta kezka nagusia, alegia, euskaraz buruturiko zinemaren abiapuntua, garapena eta egungo egoera azaleratzea (kartografia irudikatzea). Izan ere, «lehoia esnatzearen» metafora-antzekoaz baliaturiko izenburuaz hastapeneko atala eskaini dio Katixa Agirrek, Bilbon sinatua, 2022ko urtarrilean. Bertan, liburuaren bitxitasuna aurkibideak berak erakusten duela egiaztatu du arrazoiz, ezen euskal zinema deituaren sorrera azken kapituluan baitago, aurreko 270 orri txukunak ixten dituen.



1. irudia. *Irudiz eta euskaraz* argitalpenaren azala.

1. UEU: Udako Euskal Unibertsitatea.

Akabuko orrialde eta paragrafoek, hain zuzen ere, zinema euskaraz nolabaiteko jarraitutasunez filmatzen hasi zeneko arora erakarri nahi gaituzte, XXI. mende honetako lehen bi hamarkadetan barna. Enparauak, nahi eta ezinak izan omen ziren, «lehoiaren» orro gabeak, nolana ere. Panorama kurioa, kontuan izanik euskal kultura eta arte-adierazpenen XX. mendeko loraldi sarritan zailaren haize-boladaz, zinema bezalako asmakizun modernoaren zabalkuntza oparoak geure egiteko; hau da, euskalduntzeko pairatu behar izan dituen neke galantak. Esanezinak balira ere, ekarpen zorrotz honetan aireratuak eta argitara emanak dastatu ditzakegu. Oraintsu, aldiz, zeluloidetik digitalerako jauzia bide, irudiz eta euskaraz ikus-entzunezko imajinarioaren errepresentazio sinboliko baizen boteretsuak begi-belarrietara heltzen ari/ hasi zaizkigu, behingoan.

Duela gutxi gorabehera 15 urtetik gaurdaino ezein genero, zinemagile, aktore, ekoizle eta abarrak aritu izan dira euskaraz, ez barra-barra, beti erronkaz estalitako egurats lanbrotzuan, baina hori bai, porturatu da ontzia olatupean noraezean ibili ostean, kostako barrak desagertu ez baina lausotu diren neurrian... zinema sortu eta ehun urte baino gehiago iraganak direnean. Horiek aferak, nola ez, izan zuten oihartzunik UEUko ikastaroetan ere, euskal zinemaren orduko «ez izatea» konstatatzen zutenak. Baina, behinola, hangoa ozenago entzun ohi zen, urrutiago, norbaitzuek lekukoa hartzeko bezain nabarmen. 1990eko hamarraldiaren erditik aurrera, batik bat, euskarazko produkzioa sustatzeko kultur politikaren gidalerroak ere apur bat aldatuta eta bideratuta, euskal hizkuntzak berak protagonismo nabariagoa eskuratuko zuen zinemagintzan ere nola halako eragina bereganatuz, sosak lortzearekin batera filmak eta dokumentalak ugarituz.

Hortik aitzinera euskal zinemak sinesgarritasuna bereganatuko zuen apurka-apurka munduan ere, euskaraz egina izateagatik ez ezik, kalitatea erakusteagatik ere. Ondorioz, pantailan normalizatzeko erlatiboaz pausoak eman izan dira 2005etik abiatuta, zinema ahal den hoberena eta posible den hobekien gorpuztuz, berorien euskarazko izaeratik bestelako bertuteetara salto eginez. Emaizak film laburrak, animaziozkoak, komertzialak eta esperimenezkoak ere; ia-ia denetarik, botikan bezalaxe. Bestaldean, ahuleziek eta arriskuek badiraute, erronka onartuak, euskaldunok gainontzeko arloetan jasaten ditugun antzekoak.

Horrela izan bazen eta gaurkoan ere bada, ikus-entzunezko plataforma teknologiko berrietan ere barreiatu dira sorkuntzak, horietan murgiltzea autorearentzat premiazkoa baita. Kate digital batek berrogeita hamar lan inguru baititu eskaintzen euskal hizkuntzan... Milaka batzuen artean bada ere, makala ez dela dirudi, autoreak muga politikoen aldeetako koprodukzioen aukerari heltzea ere, eta horri eustea! gomendatzen duen bitartean. Bidenabar, Josu Martinez Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle gaztea izateaz gain zinema-egilea ere bada, galdua izan den zinema-ondarearen berrekuratze-lanetan eskarmentuz jarduna, ikertzaile eta antropologoa. Jakintza-egituratze mardula eta emankorra, horren kaiera liburuaren aurkibide-egitura ere bat etorritz. Bitartean, datu kualitatiboan balioztatpenerako erakusten dituen atxikipenak edota pertsonaia aukeratuei eginiko elkarrizketak aipatu hurrerapen metodologikoen aztarna lirateke. Kapitulu eta atalen sarrera ez baita nolana hiko. Lehendabizi, garaian garaiko koordinatu historikoetan eta bizi izan

dugun gizartean kokatzen baikaitu. Kultura-adierazpideek, hizkuntzari dagozkionez, soziopolitiko eta antropologikoez erruz eragiten baitute une konkretuetako argazki fidela. Zinemaz aitzin, zinemaz parean edota pelikulez haratago aurki daitezkeen erro literario, musikal zein giza sorkuntzaren ezein alderdiri apelazioa eginez, erreferentziazko marko lagungarri moduan. Ekarpeneren helburuak aitzinsolasean finkatuz, ondoren datozen argudioetan sakontzen eta xehatzen baititu.

Halandaze, XX. mende-ateko kultura-materialaren arkeologoa bailitzan, euskal zinema horren aurrekari petoak zinez bakunak topatu ditzakegula erraz konturatu gaitzke, izenak eta izanak denboran galdutakoak ez eze, hasieran ezarritako ezaugarrien galbahetik iragaziz. Lengoia globala izatera iritsitako fenomeno kontsolidatua izaki, euskara zineman ostera, ez zen hainbeste kontsolidatu, maiz hizkera arraro xamarraren kategoriaz plazaratua, pertsonaia xebleen eta tradiziozko hitzun komunitatearen ondare preziatua, kasik erromantikoa, anekdotikoa eta ohiko mentalitate (modernoan) normaltasunez kokaezina; hizkuntza txit «etnografikoa». Zaila eta zaindu beharrekoa bai, baina bizi-ezintasunez edo biziraupen-gaitzez markatua. Izenak eta ekintzak han-hemenka nozitu arren, XX. mendeko urteak iraganez joango ziren irudiz eta euskaraz bere horretan errodatu gabe, salbuespenak salbuespen. Tartean, aldekoak nahiz kontrakoak, apaizak, abenturazaleak, militarrek, beren buruak zahar jeinutzat zituztenak eta euskal kulturari geruza irristakorra kenduz egunerokotasunean txertatu nahi zutenak; nortasun entzunak edo isilduak, goraiatuak edota baztertuak. Zinema «baserrian», «itsasoan» baita «hirian» eta «fabrikan» ere, apika.

Hola-halako baten bizkortu zen kultura zinematografikoa eta arte plastikoen esparruko artisten bultzadarekin taxutu eta goratu zen *Ama Lur* «saioa». Euskal lurraldeari buruzko ikuspegi mitikoa, ipuin-arokoa, zaharra baizen modernoa, euskal arimaren esentzia ukitzen zuen irudi-sorta; ez noski, irudiengatik bakarrik, nola jarriak eta hitzez zein musika-eritmoz josiak zeuden asmoengatik, hau da, estruktura artistiko bikaina, erabat plastikoa eta estilistikoa. Basterretxea eta Larruquert Oteizaren funtzio gidariak baliatuko ziren aski, ez baitzen makala berau ere: muga-gizona, mitozalea eta lur euskalduna berriro mitologia eraberrituaz hornitzeko apustuan buru-belarri ziharduena. Interesatuak irakur beza, mesedez, aipu osoro bitxiak liburuan hautatuak eta bertako orrietara eramaten diren zita mordoa, euskal izpirituaren estilo-ariketa estetikoak omenduz.

Alabaina, filma gehienbat irudiz eta erdaraz «zizelkatua» dagoela ezin ahaztu, gainera euskaldunon hizkuntzaren berritasun-trazak puri-purian zeuden Arantzazuko urteetan (1968-1969). Orduan bukatu zuen Oteizak apostoluen frisoa (Basterretxeak kriptako margoak), monasterioko izpiritueltasun sakratuaren baitan euskara batuaren elkarrizketa-debateak sutan zebiltzala; han ere elizgizonak zenbait, beste askoren artean, zinemak hainbestetan dudatan jarriko zuen euskal hizkuntza elkartuaren eztabaida esanguratsuetan<sup>2</sup>. Euskal arima «prehistoriko» delakoaren oihartzunak, antza denez, ez zuen modernitatera altxatuko hizkuntza modernoa hobetsi, urnan

2. Hauek esaldi xumeok inskribatu dituenak aspaldi, beste liburu-aipamen baten arian egin zuen iruzkinean bota zituen gogoetak ikustatu nahi balira, honako testu hau konprobatu daiteke: Vivas Ziarrusta, I. (2010). «Euskara, comunidad e identidad. Elementos de transmisión, elementos de transgression», *Kobie. Antropología cultural*, 14. zenbakia, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 205-214. or.

sartua. Mugarrria ukaezina bazuen ere, hiri modernoko euskara-zaleentzat irensteko komeriak zituen.

Hortik aurrera buruturiko saiakerak «beirazko leihoak» puskatzen zihozten heinean, Francoren heriotzaz geroagoko paisaia politiko, ekonomiko, artistiko eta kulturaletan «erortzen» goazela Ipar eta, batez ere, Hego Euskal Herriko erakunde (ustez autonomoak) funtzionatzen hasi ahala beste izen batzuk, zinegile anitz, teorialari andana, kritikari eta komunikatzaileak agertuko dira. Baita herrietako topaketak ere: Zestoa, Lekeitio... Donostia hiria, jardunaldiak eta zinema-asteak ere. Horiek aurkitu zituzten hainbat altxor, kaleratu zituzten hamaika ideia eta gogo onezko egitasmo, askotan baliabide eskasiaz. Ezen, diru-baliabide eta abarrak laster agertuko ziren subentzio eta finantza ofizialen sabeletik, aitzitik baina, irudiz eta euskaraz beharrean irudiz eta erdaraz jarduteko, Euskal Autonomia Erkidego jaioberrian eginiko zinema oro «euskaldunaren» etiketapen klasifikatzeko gehiegikeriaz. Horrelaxe joan zitzaigun laurogeiko hamarkada, «sorotan bele», erdarazko produkzioek «euskal» zinema ludi osora barreiatzen zutela ziurtatuz. Presente baitzen, oraindik ere, *Ama Lur* aitatuaren fundazio-eredua; horretatik at pertsona gazteagoak zebiltzan.

Nozitzekoa horiek kontakizunak nola Josuren liburuaren erdibidetik atzerantz baliatzen diren eta momentu horretan filmen eszenetatik eratorririko argazkiak nola areagotzen diren koloreetan. Eskertzekoa hau ere, gainera kalitate nahiko onekoak izanda, liburuari onura bermatzen diotenak. Garai bertsuan irudiz eta euskaraz nola animazioa hasi zen ekoizten ere ikasi dugu, Ikuska Sailaren dokumentaletatik zetorren estelaren segidako beste batzuk ere, zinema nazionala sortzeko gurariak. Hurrengo oztopoa, izan ere, diru-emarien «paradisuan» hezuramaturiko «*cinevasco*» zelakoaren «lilura iragankorraz» eroriko zen, ETB sortu berriaren atariko «80etan». Hortxe dugu ekoiztetxeen mugimendua sendotu, produzitzaile berrien hauspoa eragin, Madrilerara emigratu zuten zinemagileen eginahalak igarri, produkzio erregularra egonkortzeko nahiaz. Hor baziren «gizarteratzeko» prestu bere burua agertu zuten militanteak, zinema-jendea baillitza birziklatuak.

Euskararentzat beta eta parada galdua horixe berori, norbait trufatuko ote zen egoeraz, zinema euskalduna izateko zintaren euskarazko «kopia» besterik egiterik behar ez zenean; 80ko erdibidean eta zurrunbiloaren muinoan, unibertsitatetik ere horren aldeko joera akademikoa, sententzia firmea. Bien bitartean, *Tasio* film sentiberak neurri batean, duela ia hogeituroko *Ama Lur* gogoangarria berriz oroituko ziguna, antzeko giroan baina maila xeheagoan, hau ere irudiz eta erdaraz. Alta, euskarazko lehen urratsak ere orduantxe sentituko genituen, eta huraxe harrigarria baitzen, autoreak aipatzen duenez euskara batuaren aldeko sinesgarritasun urriaz edo faltaz, aspaldiko liskarrak eta kontraesanak orotan gaintuak ziruditenean. Koska honetaz, Martinezek zera baitio: «Ikuspegi hertsia samarra da 'batua = artifiziala vs euskalkiak = naturalak' bezalako sinplifikazioetan erortzea. [...] Euskara batua, *avant la lettre*, artifiziala deitzea, euskal ikus-entzule potentzialen gehiengo zabalaren hizkera estigmatizatzea da. Negozio txarra» (265. or).

Zinemak mantendu zuen aitzakia hura erne, zorionezko ekinaren ekitez! gure hurbilagoko paradigmak jada ezabatu baditu ere. Hala ibiliak izan ginen XX. mendearen akabuan, 1987an *Kareletik* euskarazko lehen film luzea mustu bazen ere, laurogeita hamarreko urteetako «basamortuan» Eusko Jaurlaritzak eta ETBk politika zinematografikoa aldatuta gobernua produktore bilakatu zenean, Euskal Media sozietatea lagun, nazioarteko koprodukzioetara hurreratzeko. Telesailek beren lekua hartu zuten telebista euskaldun publikoan, eta kate pribatuen txanpiñoien haziera aipatzekoa izan zen, egoera ondu bainoago kaskartzuz. Sasoian, Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean animazio grafikoa irakasten zen eta bertatik makina bat bideo-film sortuko ziren, sarri askotan esperimentalak eta euskaldunak. Zikitea, zinema-euri gabezia eta agorraldia, ordea, 2005ean amaituko zen, *Aupa Etxebeste* estreinatu zutenean, handik aurrera samurtasunez ez bada ere, genero guztietako filmak irudiz eta euskaraz erditzen hasi zirenean.

Liburua ezagutzaz janzteko erabili diren iturriak oparoak eta gizenak dira; zinemari, euskal kulturari eta kultura orokorraren jakintza-arlo zenbaitzuei dagozkienak; filmografia, hemeroteka eta kontsultarako artxiboak. Ahozko iturriak ere inportanteak, noski, eta ohiko bibliografiaren alorrean nahiz eta autoreak, ene iritzi zintzoan, ahalegin bereziz jokatu, orotara darabiltzan ehun eta hamabost idazlanetatik berrogeita bost besterik ez dira euskaraz, eta horietatik dozena bat bakarrik zinemari buruzkoak, modu zuzen edo zeharkakoagoan. Euskaldunon patua, berrekiteko aukera!

Azken berba adierazi behar badut, zinema euskalduna (euskarazkoa) atzekoz aurre, edo aurrekoz atze ernaldutako delako iduri, propioki berea duena (hizkuntza) gibelean lagata. Josu Martinezen ikerlan prestua tankera honetakoa da, euskal hizkuntzaz filmaturiko zinemaren sorrera-puntu hori bukaerarako utzita. Noiz edo noiz, nonbaiten esana dut ezinbesteko liburukotea dela esku artean dugun hau, halabeharrezkoa; bertutez bapo, arazoz urri. Akatsa ez irakurtzea! Potolotasunak ez baitio udaberriko freskura ukatzen ezta udazkeneko esperientziaz blai, ironia-ukitua murrizten; istorioak misterio direla, euskal zinema «misteriotsua» ere gaitz-erdi!

*Isusko Vivas Ziarrusta*<sup>3</sup>

---

3. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakaslea eta UEUko bazkidea.

